

## Hainbat ekintza Nazinoarteko Liburuaren Egunaren harira

17. orrialdea

## Kiñu Gaztetxeak IX. urteurrena ospatuko dau hilaren 29an

Bermut saioa, bertso-bazkaria eta gauean Sofokaos eta Willis Drummond taldeen kontzertuak eta dj-a egongo dira egun horretan. Bezperan, futbolin txapelketea egongo da. Hilaren 21ean, osasun errazoiakaitik atzeratu behar izan zan Anairen kontzertua dago programata. 16. orrialdea



## Arratiako pelotariak izan dira Valentzian Pilota Txapelketan

15. orrialdea

# Xabier Aierdi: "Gizarte barri bat sortuko da"

EITBren eta TOKIKOMen Saretzen proiektuaren migrazioaren gaineko azkerketari jarraituz, hiru alkarrizketa dakarguz zenbaki honetan erdiko orrialdeetara.

**X**abier Aierdi soziologo zeberioztarrak, Hego Euskal Herrian, atzen 20 urteotako atzerritar jatorriko immigrazioaren nondik norakoak aztertu ditu. Aierdiren arabera, jatorri desbardinez osotutako gizarte barri bat sortuko da. Egungo gizarteak, immigrazioaren onarpen handiagoa dauka baina, aldi berean, enplegu sistema ahula, eta honek integrazioa segurua zaildu egiten dau.

Aurreko zenbakian, Arantzazuko Laura Sanjinesek kontau eutsan BEGITURI hona etorteko ebatziak zelan aldatu eutsan bizitza. Oingoan, Areatzako Felicia Caslatoi, Igorren ule-apaintzailea eta Igorreko Mohamed Assehli, Igorren etxean egindako jatekoa saltzeako On Egin salto-kikoagaz egon da BEGITU. 8., 9., 10. eta 12. orrialdeak



### IGORRE

## Abdul Karim alpinistearen omenezko dokumentala Igorren

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, hilaren 21ean, 19:30ean, Javier Alvarok 2022an zuzendutako *Karim-en aztarna* dokumentala ikusi ahal izango da Kultur Etxean. Dokumentalak igaz hil zan Abdul Karim, Karakorumeko alpinista eta zamaketariaren bizitza kontetan dau. 14. orrialdea

### LEMOA

## Lorezain eta garbitzaileak mobilizazioetan dagoz

Lemoako Udalak azpikontratauta dituan Limpieza y Mantenimiento Impacto S.L. eta Ute Sifu Brocoli enpresetako beharginak, hainbat greba egun eta konzentrazioak egiten dabiz, soldata igoera eske. Izan be, 17.000 eta 19.000 euro bitartean urtean irabazten dabe behargin honeek. 7. orrialdea

### ARTEA

## Herriko toponimiaren ikerketea bigarren fasean dago

Arantzazuko Rakel Iruarizaga eta Areatzako Ane Olabari ikerlariek, Arteko Toponimiaren ikerketearen bigarren faseari ekingo deustie, herriarren ahozko lekukotzak jasoz. Lehenengo fasean, toponimoak artxiboetatik atera eta Euskaltzaindiaren tresna digital baten sartu ebezan.

Bigarren fase honetan, baserri baserri ibiliko dira lekukotzak jasoten. Hori dala-ta, eta amaitutakoan zelan zabaldu herrian gogoeta egiteko, udal ordezkariak batu ziran Rakel Iruarizaga ikertzailea eta Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiakoa apirilaren 4an. 6. orrialdea

**eingo eskola**  
tradizinoa, transmisinoa

**679 417 353**  
[eingotar@gmail.com](mailto:eingotar@gmail.com)  
[eingo.taldea](https://www.instagram.com/eingo.taldea)  
 Sabino Arana 13 IGORRE

**Matrikulazioa maiatzean**



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXIII). Kale berbakunea sustatu guran

#### ARIKETAK (ERANTZUNAK HURRENGO ZENBAKIAN)

Sano gustetan (jata) \_\_\_\_\_ oingo sasoia, hainbat zugatz loran (dagoz) \_\_\_\_\_ eta.

Hik esan (dozu) \_\_\_\_\_ oin egia arrabatxo, (ez daukagu) \_\_\_\_\_ begiak zabalduetea baino, gure inguruak zoragarriak dirala ikusteko. Ze izango (litzateke) \_\_\_\_\_ mundua lora barik.

Ba (ez dakit) \_\_\_\_\_ baina, lorarik egongo (ez balitz) \_\_\_\_\_ poz gitxiago egongo (litzateke) \_\_\_\_\_ ziur.

## ERETXIA

### EHNE Bizkaiak elikagai sintetikoaren ekoizpena eta salmenta galarazotea eskatzen deutse euskal instituzinoei

Jasaten gabizan krisi sistematikokoaren ondorioei buruz adostasun handiena erakusten dauan ondorioetako bat behar doguzala da. Globalizazioan oinarritutako garapenetik eratorritako estrategiak mugara heldu dira, eta eregi dogun gizarte ereduaren paradigma aldatu behar da. Hego Euskal Herriaren garapen ekonomiko, sozial eta konsumoko ereduak 2,5 planeta baino gehiago beharko leukez mundu osoan hedatuko balitz. Beraz, argi dago parametro iraunkoragoetarantzko edozein transizino prozesuk jarduera gehienetan (industria, zerbitzuak, turismoa...) desazkunde prozesuak eskatzen dituala. Kontrara, elikagaien ekoizpenak gorantzko indizeak beharko leukez, iraukorreragoetarantzko prozesu horretan tokiko elikadura konsumoa handiago da-ta.

EHNE Bizkaiaren eretxian, nekazaritza industrializaua ekoizpen eredu gisa muturrera heltzean dabil jasangarritasun ikuspegitik. Hurrengo pausua laborategiko elikadurea da, eta jasangarritatza eta etikotzat aurkeztuko da balioko eskalatik. Paradigma barria da nekazaritza industrialaren bilakaeran; personearen natur eta animalia binomioaren deskonexiotik laborategiko elikadurearen erabateko bereizketara igaroko da. Prozesu bi horreek eragile berak bultzatzen ditu: nekazaritza industrian ezarritako finantza interesek. Eta gehitu gura dogu erakunde publikoen babes daukiela Hego Euskal Herrian.



EHNE BIZKAIKA

iragarri eban. Nabarmendu behar da BioTech Foods proiektuaren atzean JBS multinazional brasildarra dagoala, gaur egun munduko haragi proteinen ekoizle handiena.

Italiako gobernuak haragi sintetikoaren ekoizpena eta salmentea galarazoko ditu. Posizino argi bat hartu dau bere herrialdeko elikagaien sorkuntzaren harira. EHNE Bizkaiak bere XII. kongresuko hausnarketan bidetik, Hego Euskal Herriko instituzinoei elikagai sintetikoaren ekoizpen eta salmenta galarazoteko bidea abian jartzea eskatzen deutse.

EHNE Bizkaiak azpimarratu gura dau inoz baino preminazioagoa dala nekazaritza industrialaren paradigmatik sistema agroekologiko dibersifikatuetara eta iraunkorretara aldatzea. FAOK berak be aitortu dau agroekologikak bakarrik daukala gaitasuna iraunkortasunaren dimensino ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak bateratzeko.

Horrek nekazaritza eta elikadura sistema eraldatzea eskatzen dau, agroekologian oinarritutako elikadura burujaubetzarantz aurrera egiteko, biodibersidadearen konserbazioa eta lan-baldintza duinetan oinarritutako elikagaien ekoizpena bermatzen ditualako. Horretarako, lurraldea antolatu behar da eta elikagaiak ekoizteko eta banatzeko kate globalak birlokalizatu behar dira, ekoizlearen eta konsumitzailearen arteko hurbiltasun harremana bultzatzeko, eta biodibersidadea, ura eta ingurune naturala populazino guzuek eta horreen urbanizazino eta landaketa prozesuak orekatura egon daitezcan.

Beraz, argi dago elikagaien ekoizpen ereduaren arteko talkak beste dimensino bat hartzean dauala. Baserritarrek ekoiztutako elikagaiak, *in vitro* elikadurearen aurrean; eta baserritarrez osotutako nekazaritza eta abeltzaintza, baserritarrik bako nekazaritza baten aurrean. Eta errealidade honen aurrean ez da posible eredu biak babestea edo posizino neutro bat agertzea.

Kontuan izan behar dogu Europako behi esnearen abeltzaintza industrializatu handiena Kaparrotsun dogula (Nafarroa), eta Europako *in vitro* haragiaren lehen laborategia Donostian proiektatuta dagoala. 2022ko zemendian, Udalak jagokan baimena emon eutsan BioTech Foods enpreari aitaturako laborategi fabrika eregitteko, eta ondorioz, euskal erakunde finantza laguntza



## LUMATUTEN

JUAN MANUEL  
ETXEBARRIA AYESTA

## Artoa gurean

**A**rtoa izenez ezetuten dogun jakia, Ameriketatik ekarritakoa dogu XVII. mendean. Guk bageunkan aurretik, "artaxiki" (gaztelaniaz: mijo) deritxaguna, baina Ameriketako emonkorragoa suertauzan eta gure soloak artaduiz bete ziran persona zein gauduen elikagai legez.

Artoaren ereitza azaltzeko esakera bi aitatuko doguz. Bata: "San Jurgi, artoak ereiteko goizegi" (apirilaren 23a); "San Marcos, artoak ereinda balegoz" (apirilaren 25a); beraz, hazeguna, apirilaren 24a. Bestea, On Jose Miguel Barandiaranek, Martin Txikiren mito baten esakeran, besteak beste, hauxe dakar: "orri irtete arto ereite", hortik ba, arbola eta landareak orri dotozenez ereiten da artoa. Hazitarako, artagaraurik onenak gordetan ziran, hau da, garan-dukera, artaburuaren puntako garau txikienak eta atzeko itxurabakoenak kendurik.

Artoaren kultura garrantzitsua izan da gurean eta gariagaz batera biak elikagai oinarrikoak. Gariak bere maila izan dau baina artoa be ez da geratu atzean. Zeberion jasotako esaunda baten bidez azalduko deusuet. Aitu:

Behinola, garia eta artoa berbaz ei egozan euren artean eta halangoren baten badinotso gariak artoari harrokeriaz beterik: "Hi, neu nok lurreko bedarrik onena, ni neuri esker jan egiten jok jenteak, jan laberik harako ogi zein pamitxa zuriak eta zahiagaz nahastutako tremesa be bai". Gitxiago izan ez egitearren, artoak erantzun ei eutsan gariari apal-apalik: "Hi, hik harro be harro daragoiok heure burutxu hori lar dan gaina goratuten, baina, mihinean ar barik erantzungo deuat: ni nagoan lekuan be ez jagok goserik gero e! Beitiok. Hire ogien parean arto eta opil gozoak jagozak. Nire urunagaz talo ederrak eta morokil gozoa be egiten jaudiek eta ganaduek be gozo jan artagarauak prentsu lez, gainera, oiloen kasuan arrautzen gorringoa be benetako gorringoa dok".

Esanak esan eta entzunak entzunda, bakeak egin ebezan. Guretzat, garia eta artoa, biak onak, bata bestearen osagai. Bai horixe!

## ZERTZEAN



## RAFA UGALDE

## Bekaizti

**N**abegante bakartia munduko itsasoetan zehar abiatu da, ekaitzaren aurrean ikaratu egin da ezdeus sentitu baitu bere burua naturaren indar erraldoien pean, ozeano erdian haize izpirik gabeko barealdian izutu egin da geldotasunaren munstro astunak uretan iltzez josi duelakoan, baina bere bizitzari eskutik oratuta patuari begiratu dio aurrez aurre, begietara, segurtasunaren lokarriak moztu ditu hile bukaerako manipulazioari uko egin dio gaueko izarrek ulertu dute haren ihesaldia haren bakardadea, haren askatasuna eta ni bekaizti naiz.

Oihanean barrena abiatu da ibiltuna eta bertako soinu, zarata eta usainez bizkortu ditu zentzumenak, bularra elikatu, azken besarkada erdiragarri haren ziztada, azken musuaren korapiloa gogoratu zaizkio.

Gauean berak piztutako suaren epeltasuna izan du abaro eta animalia izutiek alde egin dioten arren zuhaitzekin mintzatu da, haien kontuak entzun ditu eta haien magala izan du ohantze, haien ahotsaren fir-fira sehaska kanta eta ni bekaizti naiz.

Ni bekaizti naiz oraindino hile bukaerako gezurrari estuturik nagoelako etxe aurreko mendiak amets.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**K**azetarien Euskal Elkargoak antolatutako, *Aberria karteran* titulupeko Joachim Bosch-en korrupzioaren gaineko berbaldian, urtean Espainian poderetsuek modu ilegalean, diru publikotik 50.000 miloi euro ostuten dabezala eurak gehiago aberasteko esan eban magistraduak. Eta diru publikotik ostutako dirutza horrek, marketan dauala Finlandian moduko herrialdeetako langile klasearen egoera eta geurearen arteko diferentzia.

Hori gitxi balitz, sistemeak be badauka beste modu legal batzuk, gitxien daukienei dirua kendu eta aberatsak aberasten jarraituteko. Kolaborazio publiko-pribadua, edo soldata ehunekoetan igotea, esate baterako. Ze igoera bardinagaz, %3 barbarako, askoz diru gehiago jasoten dabe gitxien behar dabenek, eta lan-baldintza prekari-zauetan soldata txikia daukienek barriz, diru gitxi.

Jatekoen prezioak igoten jarraituten dau eta jateko merkeen sasoi amaitu dala irakurri neban prensan.

Batzuentzat, gero eta gatxagoa izango da lana eukinda be, pobrezia hartzaparretatik iges egitea; jana eta etxea pagetea, hain zuzen be. Beste batzuek ordea, gazteluak, hegazkin pribaduak edota ume jaiobariak erosten jarraituko dabe. Normala balitz moduan.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

**LORAZAINTZA**

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beerredonak@gmail.com](mailto:beerredonak@gmail.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Idazgela Zerbitzu 101  
R.P.S. 31/06

ARRATIA

## Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako tailer bi hasiko dira aprilean

### Generoa pikutara!

Maitasun erromantikoari buruzko begirada materialista

Tailerra

#### Erredakzioa

Apirilaren 19an, 18:00etan, hasiko da Arantzazuko Kultur Gunean, lau eguaztenetan egiteko programata dagoan pribilegioen gaineko tailerra, eta hurrengo bariku-zapatuan, Dimako eskolako kamaran Josebe Iturriozek *Generoa pikutara!* izeneko tailerra gidatuko dau.

Izena aldeaz aurretik emon behar da Arratiako Udalen Mankomunitatean, udaletxeetan, *arratia.net* webgunean edo 94 631 17 17 eta 688 627 393 telefonoetan.

Leticia Urretabizkaiaren eskutik, pribilegioen gaineko tailerrak ordu biko lau saio izango ditu, apirilaren 19an lehenengoa eta maiatzaren 10ean atzena, eguaztenetan. Partaideek, interseziionalitatea eta daukiezan pribilegio,

maila eta zapalkuntzearen gainean hausnartuko dabe, poderea modu koherente eta konzientean erabili ahal izateko.

#### Generoa eta maitasun erromantikoari

*Generoa pikutara! maitasun erromantikoari buruzko begirada materialista* izenpeko tailerra barikuan, hilak 21, 18:00etatik 20:00etara eta zapatuan, 11:00etatik 14:00etara, izango da. Tailer honetan, kapitalismoa, genero modernoa eta maitasun erromantiko landuko dira, besteak beste. Antolatzaileen arabera, "nortasun modernoen eraikuntzak naturalizat jotzen ditu andra-gizonen kategoriak, baina ez dira naturalak" eta honako itauna botaten dabe, "prest zagoz zure gorputzean instalatu dan generoa desprogrametako?".

DIMA

## Trini Fox eta Santa Barbara taldeen kontzertuak

#### Erredakzioa

Dimetaleroak Kultur Elkartearen hileroko hitzordua, apirilaren 28an, 22:00etan, izango da Abaroa Aretoan. Oingoan, Trini Fox taldeagaz "Urrestillako azeri rocka" eta Santa Barbaragaz Urretxuko "r&r peligrasua" entzuteko aukerea egongo da.

Trini Fox, 2015ean Azpeitiko (Gipuzkoa) Urrestilla auzoan sortutako punk-rock musika taldea da. Hiru disko ditu kalean, *Bila nabil* (2016), *Letaginak* (2017) eta *Ataraxia* (2020). 2019an Gaztea maketa lehiaketako entzuleen saria irabazi eban. Suharri Aranburuk, Iñaki Zubeldiak eta Gilen Aldurrek osotuten dabe taldea

#### Santa Barbara

Santa Barbara taldea barriz, 2021ean sortu zan Urretxun (Gipuzkoa). Julen Makazaga bateria joleak (Nothagirres/Nekrobabies) eta Aitor Irureta, bajuak rock talde bat sortu gura eban eta Iñigo Agi-



ZEBERIO

## Ekain Goti da EH Bilduren alkategaia maiatzeko udal hauteskundeetarako

Zeberio EH Bilduk hautagai zerrendea eta euren programearen ildo nagusiak aurkeztu dauz. Alkate izateko, herrian "ondo ezaguna" dan Ekain Goti proposatu dabe. Beragaz batera, "esperientzia luzeko lagunak, Itzi Aranguren edo Ibai Perez; eta gazteen ikuspuntua azaldu eta defendiduko dabenak", Amaia Bernaola eta Martin Urieta.

#### Erredakzioa

EH Bilduko arabera, beti dago zer aldatu edo hobetu, eta horretan ahaleginduko dirala dinoe. "Ilusioz betetako kide ondo prestatuak aurkezten doguz horretarako, lan egiteko prest, eta herritar guztiak kontuan hartuko dituenak". Hori dala-ta, garrantzia berezia emoten deusie parte harteari. "Udalbatzak ordu egokian ipini behar dira eta aurrekontuetan arreta berezia, besteak beste. Jenteak parte hartzea zeozer natural modura ikusi behar dau".

Horrezaz gainera, beste proiektu batzuk ditue: plazatik eskolarako bidea atondu, erabilera anitzeko espazio bat diseinatu, produktoreak batera Nekazalguneko proiektua berreskuratu, basogintzan bertako espeziak bul-



tzatu eta Diputazioagaz batera, Zubialde Eskoleagaz eta Guraso Elkartegaz hartu-emona landu, berbarako. Adin tarte guztien berezitasunak kontuan hartzea, eta euskerearen erabilera bultzatzeko neurriak hartzea be garrantzitsutzat jotzen dabe EH Bildukoek. Baita ondare kulturala jagon eta ezetuten emotea be.

#### Zerrendea

Ekain Goti buru dala, aiko hemen hautagai zerrendea: 1. Ekain Goti; 2. Itzi Aranguren; 3. Ibai Perez; 4. Amaia Bernaola; 5. Martin Urieta; 6. Ziortza Sagasti; 7. Maria Junquera; 8. Laxia Olagorta; 9. Lander Astorkia; 10. Ibon Igartua; 11. Ana Alberdi; 12. Nagore Leon; 13. Naxo Diaz eta 14. Itxaso Olaso.

ARTEA

## Generoa eta sexuaren gaineko eztabaidak antolatu dabez Herriko Bentan

#### Erredakzioa

Apirilaren 29an izango da oingo hileko Botilak daraman mezua ekimeneko jardunaldia, *Garai txarrak sexuarentzat?* titulupean. Bazkarirako izena aldeaz aurretik emon behar da 94 602 88 55 telefonoan.

Goizeko 11:00etan, hasiko dira berbaldi eta eztabaidak. Lucia Gonzalez-Mendiondo eta Joserra Landarroitajuregi sexologoek, sexologiak genero eztabaidara egiten deusian ekarpenaren gainean jardungo dabe.

Gonzalez-Mendiondo Zaragozako Unibersidadeko irakaslea

da eta, beste batzuen artean, *El género y los sexos. Repensar la lucha feminista* liburuaren egilea. Landarroitajuregi barriz, Sexologia Sustantiva Institutuko fundatzailea da eta Bilboko Biko Arloak bikotearen arretarako zentroko zuzendaria.

Susana Maroto Rebollo izango da arrastiko debatearen moderatzailea. Sexologiako Profesionalen Estatuko Elkarteko lehendakaria da Maroto. Sexu-terapian, bikotetarian eta psikoterapia arloetan egiten dau lan. Landaizeko taldekoa da (Sexologiako Euskal Eskola). 17:00etan hasita, jentearen parte-hartzeagaz iluntzera arte luzatuten dira arrastiko debateak.

Gauean dj-ak ipiniko dau jantza giroa Arteako Herriko Bentan.



## ARTEA

## Arteako toponimoen ahozko lekukotzak jasoko ditue ikerlari bik

Aprilaren 4an, Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiako Onomastika Zerbitzuaren arduraduna eta Rakel Iruarrizaga ikertzailea batu ziran Udal ordezkariakaz, "martxan daukagun proiektu baten inguruko hausnarketa, gogoeta eta etorkizunerako ebatzi batzuk" hartzeako. Proiektua, Arteako toponimiaren gaineko ikerketea da eta Euskaltzaindiakoaren zuzendaritzapean, Areatzako Ane Olabari eta Arantzazuko Rakel Iruarrizaga dabiz ikerketea egiten. Lehenengo fasea amaituta dago daborduko; hau da, artxiobotatik toponimoak atera eta oin, ahozko lekukotzak jasoteari ekingo deusie ikerlariak.

BEGITU, Mikel Gorrotxategi eta Rakel Iruarrizagagaz egon da, ikerketearen nondik norakoak jakiteko.



Rakel Iruarrizaga, Mikel Gorrotxategi, Ainara Sanchez eta Gorka Beitia.

### Erredakzioa

**Zuen lanbidea toponimia ikertzea da? Ze hartu-emon dago Euskaltzaindia eta toponimia ikerlarion artean?**

**Rakel Iruarrizaga:** Ane (Olabarri) Bilboko Euskera Teknikaria da eta ni gaur egun, Berritzeguneko Aholkulari Nagusia naz. Ikerketa lan bat egiteko aukerea eskaini euskun Euskaltzaindiak eta gu prest agertu ginan, aurretik eurrakaz be alkarlanean ibili garalako. **Mikel Gorrotxategi:** Ikerlari bi honeek Zorrontzako toponimia egin eben. Gero Anek Euskaltzaindiarentzako gauzatxo batzuk egin ebazan. Euskaltzaindiak babesten ditu ikerlari moduan, baina ez dira Euskaltzaindiako ikerlariak.

**Arteako toponimiaren ikerketea da martxan daukagun proiektua. Zer da oin arte egin dozuena?**

**R.I.:** Aurreko legegintzaldian udal taldeagaz alkatu ginan eta proposamenak aurkeztu ondoren, ebatzi batzuk findu genduzan; baina koronabirusa etorri zan gero, eta uda aurretik udal talde

aldaketea. Hor etenaldi bat egin genduan eta oin berrartu dogu ikerketea. Bigarren fasean hasiko gara, lehenengo fasea amaitutzat emon dogu. Lehenengo fasea, artxiobotatik toponimoak atera eta tresna digital baten sartzea izan da. Tresna digital horrek Euskaltzaindiaren bermea dauka, Euskaltzaindiak berak prestatutakoa da. Gainera, artxiobotan-eta libre ibilteko, Euskaltzaindiak ikerlari agiriak emoten deuskuz.

Oin bigarren faseagaz hasiko gara. Bigarren fasea toponimoen ahozko lekukotzak jasotea da, eta baserriz baserri ibiliko gara Artean, bertan jaiotako baserrietako nagusiakaz, Toponimiaren inguruan berba egiten. Toponimiaz zentzu zabalean jarduten dogu; hau da, baserri, inguruetako solo, eskola, eleiza, mendi, erreka, erreka... eta abarren izenak. Horretarako etorri gara Udalarri laguntza eske: kontaktuak eskuratzeko eta etxeetako atek zabaltzeko, lekukoei, modu ofizialean, ikerlari bi joango dirala esanez. Bidea erraztuteko eskatu deusagu laguntza Udalarri.

Udalagaz izan dogun bilera in-

formatiboa izan da. Gaur ez gara etorri ebatzi bat hartzeako, aspaldian martxan dagoan proiektu baten jarraipena egiteko baino; hau da, ze fasetan gagozan kokatzeko, eta fase horretan laguntza konkretu bat lortzeako. Bide batez, hirugarren fasea amaitu ondoren, proiektuak ze bide eukiko dauan hausnartzeko, gogoeta bat egiteko konbitea be egin deutsegu Udalekoei. Euren ebatzia izango da lan horregaz zer egin.

Bigarren fasea amaituten danean, ahozko lekukotasunak jasota, arautzea tokauko da. Hor Gorrotxategik lan piloa eukiko dau guri lagunduten.

**Zein da lan hori?**

**M.G.:** Izenak arautuko dira eta Udalak ofizial egingo ditu. Baina ofizial egin aurretik, jente-aurrean jarriko dira izenok, jenteak eretxia emoteko aukerea izan dagian. Eta behin ofizialak egiten direnean hasiko gara mapa edota argitalpentxo bat prestatzen.

Modu diferenteak dagoz zabalduko. Behin lana amaituta eta araututa dagoanean, hainbat dira bideak. Bat izan daiteke mapa bat egitea; bestea izan daiteke liburu bat, baserrien argazkiakaz eta apur bat historikoa eginda, hartu dan testuingurua edo ze informazio jaso dogun aitatuta. Posiblea be bada karteldegia berrikustea eta ahozko bersinoa txertatutea, ahozkoa eta idatzizkoa ez datoza-lako bat. Ikastetxeetarako atazak edo ikas egoerak be sortu daitezke, toponimiari zabalkundea emoteko; ibilbide bat sortu ahal da inguruko leku esanguratsuenetatik buelta bat emonez... Mila dira aukerak. Eta hor hausnarketa bat egiten ibili gara.

**Toponimoak arautzeak zer esan gura dau?**

**M.G.:** Idatziz ze izen erabiliko dan

finkatzea. Euskaltzaindiak ikertzen dauana da zelan idatzi behar dan: ez zelan erabili hori ahoz.

**Euskaltzaindiaren ekimenez egiten dira Toponimia ikerketak? Ala noren ekimenez? Eta zein da Euskaltzaindiaren egitekoa?**

**R.I.:** Euskaltzaindiak ikerketeari emoten deusana da berme bat, kalidadezko zigilu bat, ze jarraipen bat egiten dau: Onomastika Zerbitzuaren arduradunak berrikusten ditu lanak, proposamenak edo zuzenketak egin...

**M.G.:** Udal batek interesa adierazoten dauanean, laguntzen deutso Euskaltzaindiak Udalarri ikerlariak izentatzen, trebatzen eta ikertzen dabizenean zer egin behar dan, zer ez dan egin behar eta zelan egin behar diran gauzak adierazoten. Hori da Euskaltzaindiak egiten dauan lana, baina beti be Udal batek eskatzen badau.

**Zenbat denpora behar izaten da holango azterketa bat egiteko?**

**M.G.:** Artearen neurriko herri baten toponimia ikertzeko, gauza duin bat egiteko, urtebete behar da horretara bakarrik dediketan bazara: ez badaukazu lanik edo eskatu badozu urte sabatikoa. Urte oso baten persona batek

egin leike. Ez dau amaituko, ezin izango da joan Simancasera esate baterako, baina bueno, hemen dagoan dokumentazio guztia hustu, antolatua, ahozkoak egin eta dana txukundu leike urtebete baten.

Iruarrizagak eta Olabarrik euren denpora librean egiten dabiz ikerketea, mosutruk. Astegoienean eta holan. Denpora luzeagoa behar da holan.

**R.I.:** Nik denporalizazioa ezingo neuke egin. Zornotzakoa egin genduan, ordu piloa sartu genduzan, aukerea geunkalako ordu piloa sartzeako. Momentu haretan lan munduan guztiz sartu barik gengoan, ordezkapen txikiak egiten Hezkuntzan eta holan. Baina gaur egun, astegoienak baliatzen doguz lanari etekina aterateko. Orduan luzatu daiteke. Baina nik espero dot maiatzaren amaierarako ahozko lekukotzak jasota egotea.

Hamar-hamabost alkarrizketa badira, bakotxa 2-3 ordukoa izaten da eta egun baten alkarrizketa bat. Baina bueno, egin dogun sasi-denporalizazio honetan, ahozko lekukotzak maiatzetako batu; bagila eta garagarriean transkribidu, eta udako oportetarik bueltan arautzea gurako geunke.

## LEMOA

## ETB1eko SOS Kantak Arriskuan programeak, saio bat grabauko dau Lemoan

### Erredakzioa

Lemoan, XX. mende hasikerako kantu bat landuko dabe eta jente bila dabiz kantau edo publiko moduan agertuteko. Maiatzaren 5ean grabauko da saioa eta parte hartzeako izena <https://forms.gle/dvTNfobpWFDXGgja8> estekan emon behar da.

SOS Kantak Arriskuan programearen helburua, herri bakoiteko abesti zahar bat berreskuratu eta herriarrakaz honen inguruko historia kontetea, eta abestia kantetea da. Bigarren denporaldirako zazpi saio grabetan dabil ETB eta eurretako bat Lemoan izango da.

Hori dala-ta, abestia kantetako zein publiko moduan parte hartzeako jente bila dabiz Pausoka Ekoizte- tekoak. Kantetako 18 urtetik gora euki behar da eta grabaketa egunak maiatzaren 3 eta 5ean izango dira. "Lehenengo egunean partaideen ahotsak entzun eta entsegua egingo dogu (arrastiz) eta bigarrenean herriaren aurrean abestu (arrastiz)" azaldu deusie BEGITU Pausoka Ekoiztetetik.

Publiko moduan egon gura ezker, grabaketea maiatzaren 5ean izango da gauz. Programan parte hartzeako ez da zertan kantua aurretik ezetu, programan bertan landuko da-ta.



IGORRE

## Kontzertua eta garagardao dastaketea apirilaren 22an Igorreko Gaztetxean



Areatza Musik and Beer jaialdiaren antolakuntzeak eta Kiñu Gaztetxeak alkarlanean antolatuta, The Riff Truckers eta The Electric Alley taldeek kontzertua eskainiko dabe apirilaren 22an, 21:00etan, Kiñu Gaztetxean. Lehenago, 19:30ean, lau garagardao mota dastatu ahal izango dira, mokadutxoakaz, 15 euroko prezioan.

### Erredakzioa

Kontzerturako sarrerak salgai dagoz Areatzan, Bixer, Hagina eta The Quiet Corner tabernetan; Artean, Herriko Bentan; Diman, Baltzola jatetxean; Igorren, Axular Herriko Tabernan eta Kukuman; Lemoan, Atxeta tabernan; Ubiden herriko tabernan eta Zeberion Amañe tabernan. Katarako txartelak Areatzan erosi behar dira.

### The Riff Truckers eta The Electric Alley

The Riff Truckers taldea Gernikan sortu zan 2005ean. Rock and rolla, bluesa eta country-a jotzen dabe hasikeratik. 2006an hasi ziran kontzertuak emoten eta harrezkerotik ez dira gelditu. The Electric Alley, barriz, 2012an Cadizen sortutako rock taldea da. 1970eko hamarkadako musikearen esentziari segiduten deitso.

### Areatza Musik and Beer 2023 jaialdiko kartela

Bagilaren 2 eta 3an izango da Areatza Musik and Beer jaialdia eta daborduko bertan egongo diran ia talde danak emon ditu jakitera antolakuntzeak. Holan, Eric Steckel estatubatuarra, La Perra Blanco cadiztarra, Edgar Blues Trio talde kataluniarra, Henrik Freischlager alemaniarra, Komodor britainarrak, Basement Saints suitzarrak, Bob Wayne estatubatuarra, Atraco talde madrildarra eta Los Retros eta James Room bizkaitarrak dira jaialdirako baiezkota emon daben bandak. Kartela osotzeko talde bakar bat konfirmatzea falta da.

Jaialdia egonkortzen eta hazten doa eta aurten, plazako karpaz gainera, zapatuan, beste karpa bi be egongo dira errekearen alde bietara. Batean janari postuak egongo dira eta bestean, musika kontzertuak.

LEMOA

## Lorzain eta garbitzaileak mobilizazioetan dagoz bizitza duina ahalbidetuko dauan soldata igoera eske

ELA sindikatuak deituta, Udalak azpikontratautako enpresetako lorzain eta garbitzaileek, apirilaren 3tik 5era eta 11tik 14ra, zazpi greba egun egin ebezan, eta arazoa konpondu ezean, beste aste bi gehiagotan greba luzatutako asmoa daukie.

### Erredakzioa

Lehenengo aste bietan, deitzaileen arabera, langile finkoen %100ek egin eben greba. Kontzentrazioak be egiten ditue euren soldatak pobrezia eroaten dituela salatutako.

Lemoako Udaleko hiru zerbitzu dagoz greban: lorzaintza zerbitzua, pasa dan urtean onartu ebana hitzarmen estatala; eraikinetako garbitzaileak, Bizkaiko hitzarmena daukan zerbitzua, eta kale garbitzaileak, hitzarmen estatala eta oso zaharra daukan zerbitzua, hain zuzen be. Eraikinetako garbiketarako, Limpieza y Mantenimiento Impacto S.L. eta lorzaintzarako Ute Sifu Brocoli dira Lemoako Udalak azpikontratautako enpresak.

ELA sindikatuaren arabera, urte asko daroaz beharginek "baldintza miserabletan"; urtean, 17.000 eta 19.000 euro gordin bitarteko soldatakaz. Baldintza horreekaz amaitutako dagoz greban. "Ugaon, lorzain eta garbitzaileak antolatu egin ziran, grebara joan, eta %26ko igoera lortu eben. Guk bardina egitea ebatzi dogu. Gure egoera jasanezina da: hitzarmen estatale sakonki pobretzen gaituelako; 10 urte baino gehiago daroaguzalako egoera honetan eta kokoteraino gagozalako pobreziaz, eta gure bizi baldintzak hobetu gura doguzalako" dinoe ELA sindikatutik.

Mobilizazioetan, antzeko populazioa daukien herrietako beharginen lan-baldintzak bardindu arte jarraituko dabela azaldu deitso BEGITURI greban dagoan lorzain

batek. "Lemoan antolatu gara eta prest gagoz gure lan-baldintzen alde sutsu burrukatzeko" dino beste batek.

### Azpikontratak

Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatearen arabera, "langile honeek ez dira udal langileak eta Udalak ezin ditu euren lan-baldintzak negoziatu; beharginek euren hitzarmenak enpresakaz edo patronalagaz adostu behar ditue". Ha-ta guzti be "guk (Udalak) udalagaz hartu-emon ez zuzena daukien behargin guztientzako proposamena egin genduan, zerbitzu horreetako beharginentzat barne. Udalak proposatuten dauana, gehiengo sindikalak, ELA barne, eta gehiengo talde politikoak Karta Sozialean eta Eusko Legebiltzarrean eskatuten dabizana da, 19.600 euro urtean, gehi bakoitxak bere hitzarmenean jasoten dauzan plus guztiak. Proposamen honegaz, greba egiten dabizen behargini batzaz beste %10 igoten jakie soldatea".

Ehunekoetan zeozer emoten dauan arren, igoera hori ez litzateke la prekariedadetik urteteko nahikoa uste dabe. "Benetako ezker gisa jarduteko eskatzen deitso Udalari: ez gu aberats bilakatzea, ezta gitxiago be; baina bai baldintzak duintzea Ugaon egin daben moduan. Ez 19.600 euro ziztrin. Eskaintza hori iraingarria iruditzen jaku" dino behargin batek.

Jon Ander Zelaia ELAko ordezkariak be, Udalak lan-baldintzak hobetutearen aldeko apustua egin behar dauala uste dau. Izan be, hitzarmena eta soldata igoerea enpresak sinatu arren, "azpikontratek soldatak igoten ditue Udalak dirua ipintzen badau. Horregaitik Euskal Herriko gatazketan, %90eko kasuetan, administrazioa interpeletan da; azken finean bera dalako dirua ipinteko ebatzia hartuko dauana, lan-baldintzak hobetzekoa. Nor interpeletan dogu Osakidetzako garbitasunean? Garbaldi enpresea ala Jaurarritza? Azken hau da-ta, dirua ipini ala ez ebatziko dauana".



ARTEA

## Migrazioen gaineko berbaldia antolatu dabe Herriko Bentan

### Erredakzioa

Apirilaren 22an, 17:30ean, *Mugan. Migrazioak eta krisiak: tentsioak eta erresistentziak* titulupean, Eduardo Romerok eta German Garcia gaiaren inguruko berbaldia eta eztabaidea egingo dabe Arteako Herriko Bentan. Hizlariak gaiagaz loturea daukan liburu bana kaleratu dabe.

Eduardo Romerok migrazioaren kausen errealidade sozialaren gainean egingo dau berba; hau da, egiturazko kausen gainean. Romerok *¿Cómo va a ser la montaña un dios?* publikau eban igaz. Kronikea eta ensaioaren artean, liburuak migrazioa eta exilioa hartzean ditu gaitzat, besteak beste; Asturias eta Kolonia lotuz. *En mar abierto, Autobiografía de*

*Manuel Martínez* eta *La nueva normalidad* pandemiaren sasoiako artikuluen bilduma bat, dira Romeroren beste lan batzuk.

German Garcia Arteakoak, migratzaileek hona etorritakoan tope-tan dabena izango dau berbagai. *El mismo camino andamos* (Bellaterra, 2022) liburuaren egilea da Garcia. Liburu horretan, Ongi Etori Errefuxiatuak plataformearen sorrerea eta ibilbidea jasoten dauz, errefujiaduen eskubideen aldeko mobilizazio politiko bat sortzean lagundutako helburuagaz.

## SARETZEN. DEMOGRAFIAREN BILAKAAREA (II)

# Xabier Aierdi: "Immigrazinoak ekarpen ekonomiko ikaragarria egiten dau gizartearen"

Saretzen 2.0 ekimenaren barruan immigrazino prozesuen gainean egin dogu berba Xabier Aierdi Urza soziologoagaz.

Migrazino mobimentuz eta batez be immigrazinoaren inguruan berba egiteko jo dogu Xabier Aierdi Urza (Zeberio, Bizkaia, 1957) soziologoarengana. Immigrazino edota gizarte zerbitzuetan aditua da eta 2003an Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren sortzailea eta zuzendaria izan zan 2003tik 2011ra bitartean. Era berean, immigrazino gaietan Begirune Ikerketa Laborategiko zuzendaria izan zan 2011tik 2013ra, eta Eusko Jaurlaritzaren aholkularia izan zan 2014 eta 2016 urte bitartean Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean. Saretzen proiektuaren bigarren kolpe honetan migrazinoari buruz eta Hego Euskal Herrian immigrazioak izan dauan eragina aztertu dogu beragaz batera.

Maidier Ibañez (Saretzen)/  
Erredakzinoa

**Ikuspegiaren arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jatorri ez espainiarreko 56.868 persona egozan, biztanleria osoaren %2,6a. 2022ko urtaillean 253.034 ziran atzerrian jaiok (%11,5). Datuak ikusita, nabarmena da jatorri ez espainiarra daukien personen hazkundea EAEn.**

Errealidade barri baten aurrean gogozala erakusten dabe datuok, baita errealidade hau egiturazkoa izango dala be. Norbaitek uste badau joan-etorriko personen aurrean gogozala, hori ez da holan: datozan personak bertan geratuko dira eta bertan euren bizitza garatuko dabe. Pentsau behar doguna da gizarte barri bat sortuko dala, jatorri desbardinenez osotua, eta gure erronkak zeozelango urtartasun praktikoa bultzatu behar daua.

**Zein da erronka horren ardatza?** Gizarte bat sortu behar dogu biziteko merezidu dauana. Danentzako aukera bardinak egongo dirala eta apurka-apurka aukerak bardinuko dirala ikusi behar dogu. Eta etorkizunera begira etekinak emonkorak izango dirala pentsau. Askotan planteetan da immigrazino alboko bide bat lege, eta oso inportantea da jakitea immigrazino prozesua oso gogorra dala. Atzen finean lortu behar doguna da goranzko mobikortasuna bermatuteko tresneria bat ipintea, adibidez, immigrarien seme-alabek bertan ikasi dagien.

**Etorkinen bigarren belaunaldia litzateke.** Holan da. Immigrazinoaren lehen belaunaldia askotan barneratuta ekarten dau zeozelango sakrifizio bat edo autoimmolazino bat. Hau da, badakie eurak hona datozela,

badakie hemen kokatuko dirala, badakie bizitza gogorra egingo jakie, baina edozein familiak edo gurasok lege gura dabe gauza oso simple bat: seme-alabei ondo joatea.

**Hau da, ondorengo ondoizatea bermatzea.**

Bai. Immigrazino da beharbada bizitzan dagoan fenomenorik arruntena. Hau da: "Zer gura dozu? Bada nire ondorengoek izan dagiela agian nik izan ez dodan bizitza, eta ondorengoek izan dagiela bizitza arrunt bat".

**Multikulturalidadea vs Interkulturalidadea: alkarregaz baina nahastu barik vs alkarregaz eta nahastuta. Alkarregaz bagagoz, baina nahastuta egotea gatxagoa dala esango zeunke?**

Nahastuta egotea gizarte moduan izan behar dogun helburu bat da. Askotan ahaztu egiten jaku bertako guztiak ez garala ondo konponduten, bertako askogaz ez dogula egon gura. Ajolabakokeria sotil bat existidu behar da: ni izan naiteke oso persona atsegina besteentzat, baina ez dogu zertan sakondu bere hartu-emonetan. Hori holan gertatzen da, eta beste egoera batzuetan, egoera oso maltzurtuta egoten da talde eta jatorri kolektibo desbardinaren artean. Batzuetan esaten da auzokide onak izateko onena dala hormak existidu daitezala eta euren artean ez dagiela hartu-emonik izan. Esate baterako, zenbait uriburutan auzo txinatarak, auzo irlandarrak, auzo latinoak dagoz, hau da, gizarteak eta uriak segregatuta egoten dira, eta hori, atzen finean, ez da eredu on bat.

**Zergaitik dagoz uriak segregatuta?**

Normalean errazoi ekonomikoakit. Esate baterako, badagoz zonalde batzuetan aberatsak bizi diran auzoak, eta beste auzo batzuk,



"Immigranteak gurera etorri dira guk konpondu ezin doguzan preminak batzuk asetzera"

"Pandemiak bernazionalizazino kezkarri bat ekarri dau"

"Datuok erakusten dabe errealidade barri baten aurrean gogozala"

baztertuak ez badira be, askoz be zaugarriagoak diranak. Multikulturalidadeak esango deuskuna da jente moltoak dagozala, baina ez dala euren artean kontaktua eskatu behar. Interkulturalidadera pasetan garanean, oso inportantea da ahal dan eta kontakturik handiena bermatzea. Hiru elementu aitaten dira: helburu gisa bardintasuna lortzea; desbardintasuna errespetetea; eta interakzino bultzatzea. Hiru elementu horreek nahastea izan beharko litzateke gure gizartearen helburua.

**Argi izan behar doguz hiru elementu horreek, beraz.**

Hiru elementu horreek argi izan behar doguz, eta gero etorriko dira nahasketak. Oin dala 60 urte Espainiatik 600.000 persona etorri ziran gurera, eta hasieran pentsetan zan inbasino bat izan zala. Biztanleria ia bikoztu egin zan Euskal Antonomia Erkide-

goan. Nafarroaren kasuan beranduago heldu zan immigrazino, 1980eko hamarkadan.

**Gaur egun gertatzen danaren antzekoa, ezta?**

Bai. Espainiako immigranteak etorri ziran hona, bertan kokatu ziran, eta gaur egun dagozan seme-alabak orduan etorri ziranen ondorengoak dira. Pentsau dagine 40 urte barru holango zeozer gertatzea be, baina Espainiatik etortez gainera, beste herrialde batzuetatik datozela.

**Migrazino prozesuez galde-tuko banetsu...**

Migrazinoak oso prozesu sinpleak dira, baina prozesu horren barruan gogortasun gradu desbardinak dagoz. Zoritxarrez, immigrazinoaren fenomenoaren desenfokau egiten dogu: pentsetan dogu dana dala Mediterranea edo dana dala sufrimentua. Eta ez. Migrazinoen %90 beti funtzionau dauan me-



kanismoa izan da gure gizartean: nonor dator eta nonor horrek deitzean dau bere anaia, nebea, arrebea edo ahiztea, eta gero horreek deitzean ditue euren auzokoak, ezagunak, lagunak... Eta holan heltzean gara leku askotan gertatu izan danera: jatorri eta herri berbereko jente moltso bat dagoala kokatuta auzoetan.

### Zergaitik etorri ohi da jentea atzerritik?

Azken finean somatu daualako hemen eskasia bat egoala. Eta eskasia non egoan? Bada beharbada gure ikusten ez genduan arlo baten. Esate baterako, etxeko lanak eta zaintza lanak ikusezinak izan dira.

Soziologok lan mundua aztertzen oso berandu deskubridu dogu: gauza bat dala enplegua eta beste gauza bat lana. Gizarte batek funtzionetan dau lan kopuru oso baten ondorioz eta ez enplegu baten ondorioz. Egon dira aldaketa oso sakonak familietan: txikitu egin dira, zaintzalanak geratu dira bete ezinik, eta guri heldu jaku batez be biztanleria latinoamerikarra, eta batez be feminizaua, arlo hori guztia kubriduteko.

Hori kubriduteak eskatuko leukez inbersino handiak, baina gizona sartzea modu erradikalean arlo horretan.

Horrezaz gainera, Europatik be etorri da beste jente bat antzeko gauzak egitera, baina era berean gauza desbardinak egitera be. Adibidez, Errumaniatik etorri izan dan jentea sartu da sektore industrialean, eta oso ikusgarri da, momentu honetan immigrariaren porzentaje handiena Ordizian egotea. Batez be errumaniarrak dira.

### Hortaz, gure bete ezin doguzan preminak asetzera etorri dira immigranteak gurera.

Leku bakotxean topau geinkez osaera desbardinak udalerririk desbardinetan, udalerririk horreetan dagozan premina desbardinaren arabera. Hori oso inportantea da. Orduan, zertara etorri dira? Bada gure konpondu ezin doguzan premina batzuk asetzera, bai.

### 2002an batez be Latinoamerikatik etorri ziran migranteak Hego Euskal Herrira. Hogei urte ondoren, gorabehera gehiago emon eta Europatik edo Afrikatik be etorri dira herritarrik.

Hemen daukaguzan alde batetik preminetara zuzenean zuzentzen diran jatorriak, batez be, latinoamerikarrak eta Europa erdikaldetik etorritakoak dira. Beste fenomeno bat ezin doguna baztertu da Afrika oso hurrean dagoala, eta horrek be bere baldintzak inposatzen ditu. Kontuan izan behar da marokoarrak be lehendik baegozala hemen, Eibarren, Ermuan, eta inguru horretan, ber-

barako. Gaur egun marokoarren kopurua ugartu egin da, hurbiltasunagaitik. Maroko da zeozelango erreguladore bat, baita Libia, Tunisia eta Turkia be.

### Horrek zer esan gura dau?

Europar Batasunak kriston dirutzak emoten deutsez estadu horreei urtero immigrazinoa erregulau dagien. Batzuetan erregulau egiten dabe beste batzuk etorri ez daitezana, eta beste batzuetan eurek behar dabenean zelanbaisteko presinoa kentzeako ba bialdu egiten dabe jentea. Pentsau behar doguna da Afrika pasauko dala 1.000 milioi pertsonatik 4.000 milioira. Beharbada 4.000 milioira ez da helduko, baina 3.500 milioira heldu daiteke erraz. Hori izango da mende honetako aldaketarik garrantzitsuen demografian. Ordezkapen demografikorako ez da arazorik egongo, baina logikoena izango da 150 milioi afrikar egon leitekela mendea amaitu orduko Europan. Datuak ez dira zehatzak, baina antzekoak izan leitekez. Aldaketa barria Afrikan dator.

### Migratzaileak gurera etorteak eragin ekonomikoa izango dau.

Eragina ikaragarria da, baita isila be, eta horretan dago arazoa. Alde batetik, zelan irudikatzen dau biztanleria autoktonoak immigrazinoaren etorrerea? Esaten da gugandik bizitera datozala, gure tarta jatera datozala, gure gizarte politikak aprobetxetara datozala... Hori ez da holan: migrazinoak modu askotan, modu isiletan, modu ikusezinean eta modu oso material nabarmenetan ekarpen ekonomiko handia egiten dau gurean.

Ikuspegik egin ditu ikerketak eta askotan oso datu urriakaz bakarrik sano erraz frogatzen da ia laukoztu egiten dabela zerbitzuetan eta abar sortu egiten daben kostua. Era askotako ekonomia material bat —monetarioa—, baina badago ekonomia afektibo bat be. Hau da, gaur egun zaintza zelan baloretan dogu? Nork konpontzen dau? Zenbat gatazka familiar saihestu da immigrazinoaren etorrereagaz?

Beste kontu bat, eta hau kezkarriagoa izan leiteke: immigrazinoaren eta oro har sektore askoren integrazino segururako, beharbada gaur egungo enplegu sistema oso ahula dala. Luis Enrique Alonso soziologoak esaten dau: "Enplegu oso ahul baten gainean oso zaila da gizarte sendo bat eratzea". Orduan, immigrazinoak ekarpen ekonomiko handia egiten dau gizartean? Bai, ikaragarria!

### Prekarietateaz be berba egin beharko dogu.

Bai. Egia da politikek asko babes-



"Lehen baegoan mesfidantza handiagoa immigrazinoagazko, baina oin onarpena nabaria da"

"Gizartean dagozan sektore zaugarriak zenbatean sentiduten diran babes barik aztertu behar dogu"

"Immigrazinoaren eta oro har sektore askoren integrazino segururako, beharbada gaur egungo enplegu sistema oso ahula da"

"Gizarte barri bat sortuko da, jatorri desbardinez osotua. Gure erronka da uritartasun praktikoa bultzatzea"

ten dabela prekarietateaz.

### Hori aldatzea eta prekarietate mugatzea noren erantzukizuna da?

Gizarte osoarena: bertakoena eta indarra baleukie, agente instituzionalena. Zoritxarrez, globalizazioaren ondorioz, ekonomiak sortzean ditu sarraski sozialak eta hori normalean joaten da demokraziaren kaltean. Jenteari galdetzen badeutsazu zelango sistema politikoa gurako leuken, seguruenik esango deutsu apur bat autoritarioa izan arren, ekonomikoki efizientea dana. Esate baterako, Ingalaterran, Brasilen edo Estatu Batuetan jente asko sentiduten da babes barik eta orduan gurago dau lider gogor bat, demokrazia debaluauko dauana, kontrakoa baino. Mende honetako burrukea izango da hori be.

### Pandemiak eta Ukrainako gerreak giza-mobimentuetan eragina izan dauala esango zeunke?

Eragin anibalenteak izan dituala esango neuke. Bairudian kezkatu egingo ginala pandemiak ekarri eikezan ondorio batzukaz, baina egoan ekonomiagaz eta pandemiak sortu dauan egoera barriagaz, gizarte osoaren ahulezia daukagu. Gogora daigun kutsatzeak saihesteko alboko herriakaz edota kasu batzuetan ondoko auzoakaz mugak ipini behar genduzala. Termino politiko-estandarrik erabilia, pandemiak bernazionalizazio kezkarri bat ekarri dau, batez be mugak zarratzen oinarritu dana.

Mobimentu sozialetan be ahulezia ekarri dau pandemiak. Mundu guztia bildurtuta edo arriskuan topau izan eikian bere burua, eta horrek praktika ez oso solidarioetara eroaten dau gizartea. Epe laburrean oso ezkorra naz gaur egun zabaltzen diran baldintzakaz. Badago logika harrapakari bat danataz baliatu gura daua-

na, pentsau barik horrek ekarri leikezan ondorioak. Gaur egun praktika solidarioetarako gero eta espazio txikiagoa dago.

### Epe laburrez egin dozu berba, baina epe ertainera eta luzera begira, zer?

Bada, ez daukat idearik be ez. Uste dot mundu barri bat sortzeaz daukagula, eta munduan egoteko modu barri oso bat sortzeaz daukagula. Polarizazio gero eta handiagoa dago, gizartea gero eta gehiago zatikatzen eroaten daben praktikak dagoz, eta momentu horretan egoera horretan gagoz. Egon leiteke sektore bat oso konziente egoera honetaz, baina gero eta gaxtagoa da konzientzia hori heldu arazotea, adibidez, ekimen politikora. Beste alde batetik, kontua da tresna barriak asmatu behar doguzala integrazino sozialerako.

### Adibidez, ze tresna izan daiteke horreek?

Bada, adibidez, Oinarritako Errenta Unibersala edo antzeko tresnak. Horretarako gizartea prestatu egin behar da, konzientzia hartu behar da. Bere garaian antropologia marxistek esaten eben giza kiaren benetako izakerea ekitela zala eta ez lan egitea. Orduan, horri guztiari buelta asko emon beharko deutsaguz, lasaitasunez, baina hausnarketa handiagaz.

### Migratzaileagazko ikuspegia aldatu egin dala esango zeunke?

Nik uste dot migratzaileagazko irudia lasaitu egin dala. Bere momentuan egozan usteak ziran zeozelan nobedadeagaz batera etozanak, baina era berean, bildurtu egiten ebenak neurri baten. Ikara horren ondorioz, baegoan mesfidantza handiagoa immigrazinoagazko. Ikuspegik ateraten dituan datuak ikusten dodazanean konturatuten naz tolerantzia indizeek gora egiten dabela, lehen egozan kezkarri baretu egin dirala. Horrek adierazoten dau normaltasun bat. Eta seguruenik horren atzean badago konzientzia nabarmenago bat hau estrukturala izango dala adierazoten dauana. Gizarte honetan balore sano positibo asko dago eta immigrazinoaren onarpen handia dago. Azken 20 urtetan bost gertakari egon leitekez erakusten dabenak oso xenofobia argi bat. Beste gauza bat da diskriminazio leunak: etxeak ez alkiletea, eskoletatik alde egitea migrari asko datozanean... Holangoak be egon badagoz, egongo dira, eta horreek zuzendu beharko dira tresneria instituzionala ipinita. Hata guzti be, oro har esango neuke badagoala onarpen handiago bat. Pentsau behar dogu hau etorkizuneko ezaugarri bat dala, Euskal Herriko gizartearen osaera sano konplejua izango dala hemendik urte batzuetara. Astiro-astiro onarpen hori nabarmena da.

649 979 115



inigoirua@begitu.eus

IPINI  
ZURE  
IRAGARKIA  
BEGITUN

## Etorkinak eta etorkizuna

Atzerritar jatorriko Arratia, Ubide eta Zeberion erroldatutako batz bestekoak gora egin dau atzen 20 urteotan, baina Hego Euskal Herrikoa (%11,5) eta Bizkaikoa (%10,8) baino txikiagoa da. 2001ean, 291 lagun ziran eta 2021ean, 1.545, herritarren %9,9a atzerritar jatorriko gurean erroldatutakoak. Errumania, Maroko, Kolonia eta Bolivia dira jatorri nagusiak.

### Erredakzioa

Flujuak ez dira denpora guztian bardinak izan 2002tik 2021era. Lehenengo hamarkadan, gure eskualdean, Errumania eta Bolivia ziran jatorri jentetsuenak; bigarren hamarkadan barriz Marokotik etorten dira asko. Momentuko egoera ekonomikoaren arabera, gurean erroldatutako andra eta gizonen kopuruak be izan ditu gorabeherak eta krisietan moteldu da etorrerea. Arratia, Ubide eta Zeberion, eraikuntzan,

industrian eta mendietan lan egitera batez be etorri izan dira gizonak eta etxeko eta zaintza lanetara andrazkoak lehenengo hamarkadan; bigarrenan, horreetan gainera, ostalaritzan eta komertzioan be lan egiten dabe askok. Ikuspegik egindako azterketa baten arabera, etorkinek ekonomiari egiten deustien ekarpena, eurek jasotakoa halako lau izaten da. EAEko industrializazioa 1950 eta 1960 hamarkadetakoa Espainiatik etorritako immigrazino barik ulertu ezin

dan moduan, oingo gizartea eta ekonomia be ezin dira ulertu atzerritik etorritako immigrazino barik. Ezta etorkizuneko be.

Euren herrialdea itxi eta gurea datozanek helburu bat daukie danek: euren egoera hobetutea eta, batez be seme-alabena. Asko ume txikien guraso dira ebatzia hartzean dabenean. Eta ebatzia hartzea ez bada erraza izaten, bizimodua topatzea hona heldutakoan, gatxagoa da beti. Aurrera egitea be ez da samurra izaten. Akaso latzagoa da oin, oin dala

20 urte baino.

BEGITUK, aurreko zenbakian Arantzazun bizi dan, Arratian 20 urte daroazan eta zaintzan lan egiten dauan Boliviarr jatorriko Laura Sanjinesegaz egin eban berba, eta oingo honetan, urte biko umea zala Areatzara etorritako Felicia Caslatoi ule-apaintzaileagaz eta Arratiara 2017an etorritako Mohamed Assehli, Igorren etxean egindako eroateko janaria saltzen dauan On Egin dendakoagaz, euren historiak eta proiektuak ezetuteko.

## Felicia Caslatoi: "Errumaniara noanean, turista sentiduten naz han"

2000ko lehenengo hamarkadan Errumaniatik etorritakoen artean Felicia Caslatoi eta bere familia egon ziran. Felicia 2001ean jaio zan Constanza (Errumania) eta urte bigaz etorri zan Areatzara, ama eta hiru hilabeteko ahizta txikiagaz. Lehenagotik etorria zan aita.

Feliciak ule-apainketea ikasi eban Bilbon eta Igorreko Kirru ule-apaindegian egiten dau behar.

### Erredakzioa

#### Zu Areatzara etorri orduko, aita hemen zan beharrean, ezta?

Aita lehenago etorri zan eta pisu konpartidu baten egon zan biziten beste lau edo bost mutilegaz. Bera igeltserua da betidanik eta eraikuntzan egiten eban behar. Areatzara etorri eta handik denpora batera etorri zan gure ama, ahizta txikia eta biokaz. Ahizteak 3 hilabete eukazan.

#### Eskolan Areatzan hasi zinan. Ze hizkuntza egiten zenduan etxean? Hizkuntza dala-ta arazorik euki zenduan eskolan?

Hiru urtegaz hasi nintzan eta oso txikia nintzanez, hizkuntza ez zan arazo izan, nahiz eta etxean errumaniar errusieraz berba egin.

#### Pentsetan dot txikitan, udan, Errumaniara joango zinala, kulturen arteko talkarik senti- zenduan?

Urtero ez ginan joaten baina bai, askotan joaten ginan. Nik ez neban kulturen arteko talkarik senti- du, biak neureak baino.

Dana dala, ni hangoa baino

hemengoa sentiduten naz. Txikitatik nago hemen, hemen egin dot nire bizitza eta hara noanean han sentiduten naz turista edo atzerritar.

#### Zure kuadrillan billaroztarrak bakarrik zagozie ala Arratia osoko jentea dago?

Batez be billaroztarrak baina ez baka-

rik, Arratia osokoa esango neuke.

#### Eskola eta Institutuaren ostean, ule-apainketea ikasi zenduan.

Bai, Bilboko Fernando zentroan ikasi neban, lanbide hau asko gustetan jatalako. Lanari jagokonean ez dago jakiterik zelan izango diran gauzak, demagun, ha-

mar urte barru, baina nik honetan jarraitutea gurako neuke, hauxe da-ta gustetan jatan lanbidea.

#### Aita igeltserua, zeu ule-apaintzaile, amak eta ahizteak be egiten dabe behar?

Amak garbiketean egiten dau behar eta ahiztea ikasten dago. Haur Hezkuntza ikasten dabil.



# ZORNOTZA LHII EHUREkin elkarlanean

Leioako Arte Ederretako Fakultateak eta ZORNOTZA LHIIk sinatu berri duten elkarlanerako hitzarmenaren ondorioz, unibertsitateko irakasle talde bat eta doktoradutza egiten ari den ikasle bat zentzura etorri ziren eta eskultura proiektua aurkeztu zuten.

Ikasleak egindako eskulturaren maketa aztertu ondoren lanari ekin zioten eta eskultura metalean egin da, soldadura eta muntaia teknikak erabiliz.


Bilboko Udalaren Kultura ataletik, Kultura barrutik ekintzen baitan EXPODISTRITO 2023 erakusketan Juanje Agirrerren eskultura ikusgai egongo da.

Bide batez gure harremanak sendotuz ikastetxeko ikasle bat Unibertsitatera joan da praktikak

egitera, bertan erabiltzen duten soldadura sistemak ezagutzeko eta praktikan jartzeko. Ikasleak bere ezagutzak eta gaitasunak partekatuko ditu bertako irakasle eta ikasleekin.

Beste alde batetik Euskal Herriko Unibertsitateko Geologia sailak, simuladore sismiko bat egiteko laguntza eskatu dio ZORNOTZA LHIIri

Proiektu honen helburua lurrikarak simulatzeko mahai bat diseinatzea eta montatzea da. Simulagailu sismikoa (edo mahai bibratzailea) saiakuntza esperimentalen aparatu bat da, egitura baten erresistentzia sismikoa probatzeko. Proba - aparatu hori gai da elementuei edo egitura osoen ereduak bibratioak ezartzeko, lurrikaren kasuan lurzorua mugimendua erreproduzitzen.



Urritxe auzunea, z/g  
48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)  
94 673 02 51

info@fpzornotza.com · www.fpzornotza.com



## BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

### 2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_  
Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_  
Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

# Mohamed Assehli: "Gatx ipini da negozioa aurrera ateratea"

Igorreko On Egin saltokian egindako janaria eta gozogintza artisaua saltzean ditue Mohamed Assehlik eta Fatimak. Marokotik 2005ean joan zan Espainiara Assehli eta 2017an etorri zan Arratiara familia osoa. Andra-gizonek, lokal bat hartu eta eroateko jatekoa egiteko egokitu eben, inbersino handia eginda; baina negozioak ez dau emoten gastu guztiak kubridu ostean, familia aurrera aterateko.

## Erredakzioa

### Non jaio zinan eta zein zan zure bizimodua hona etorri aurretik?

El Kbab-en, Khenifra, (Maroko) jaio nintzan 1974an, nekazari eta abeltzain familia baten. Etxean jerseyak egiteko makinak geunkazan eta jerseyak egin eta inguruko merkaduetan saltzean genduzan. Horrezaz gainera, nik Zuzenbidea ikasi neban unibersidadean. 1998an ezkondu egin nintzan.

### Noz etorri zinan Arratiara?

Arratiara 2017an etorri ginan. 2005etik nengoan Almerian, negutegietan behar egiten. Urte gogorak izan ziran; hasieran paper barik egiten neban lan, gero familia etorri zan... 2017an, lan gatazka bat egon zan lan egiten genduan enpresan, eta urtebetez behar barik geratu ginan gure eskubideen alde burrukan egin izanagaitik. Orduan, Ongi Etorri Errefuxiatuak Mugak Zabalduz-en karabanea etorri zan Almeriara. Karabaneari harrerea egin geuntsan Podemos eta Sindicato Andaluz de Trabajadores-eko jenteak. Han, OEEko jentea ezetu neban, Arteako Mikel Zuluaga tartean, eta gure egoerearen barri jakin eben OEEkoek. Berbaldiak egin genduzan eta Almeriako immigrazino zentroak bisitau ebezan karabanakoek. Mikelek Arteako etxera joateko konbitea egin euskun, "Arratiara etorri gura badozu, ondo etorria izango zara" esanda.

Lan-gatazkea baino lehenago be, kokoteraino gengoan Almerian, eta beste herrialderen batera joateko asmoa geunkan. Idea zan Euskal Herritik pasetea Frantziara eta gero Belgikara-edo joateko. OEEko karabanea Almeriara joandakoan, heldu jakun momentua Euskal Herrira etorteko. Gero, asko gustau jakun hau.

### Artean egon zinien hasikeran, orduan.

Bai. Arteako errefujiaduentzako harrera etxean egon ginan. Nik suetean egin neban lan, erosketak egiten... Gure artean alkarrerri lagunduten geuntsan eta lan-lana baino, lan solidarioa zan. Handik pare bat urtera, geure kabuz

ipinteko momentua heldu zan. Andrea eta biok gurea zan zeozertan egin gura genduan lan. Beti gura izan dogu hori.

Sukaldaritzan eta gozogintzan daukagun eskarmentua aprobexautu, marokoar eta euskal sukaldaritzako eroateko jatekoa saltzea ebatzi genduan. Holan sortu zan On Egin.

Gogorra izan zan hasikeran eta

gogorra izaten jarraituten dau. Gatxa izan zan lokala lortutea eta negozio bat martxan ipinteko behar diran betebeharrak guztiak bete-tea. Hutsik egoan lonja bat hartu genduan Igorren. Herriko jenteak badaki hemen lehen etxerako al-tzariak saltzean zirala. Lokala hartu genduan, oindino logelarako armairuak egozan. Instalazino guztiak geuk egin dogu: suetea

ipini, ke-erazgailua... 2019ko zemendian zabaldu genduan eroateko janaria saltzeako den-da hau. Eta handik gitxira zarratu egin behar izan genduan pandemia zala-ta.

### Zelan doa negozioa? Aurrera aterata da?

Ez da espero genduan. Gogor gabiz lanean, baina ez dau nahikoa diru emoten. Etxean egin-

dako janaria daukagu, gozogintza artisaua... baina azkenean, Arratia txiki geratzen da eta gatxa da gastuak kubridutea, lonja eta etxeko alokairuak pagetea eta abar.

### Eta zer egiteko asmoa daukazu orduan?

Oindino ez daukagu planik, eus-tea baino ez. Diru asko inbertidu dogu eta ez da erraza. Makineria guztia... Hasikeran pentsetan genduan aurrera aterako ginala, baina aspaldi honetan sano gatx ipini da. Auzokoei esker, jenteari esker, bezeria daukagu. Jenteak ondo hartzean dau bertan egindako janaria eta Fatimak egindako gozogintzea, baina sano mugatuta dago. Hasikeran jentea animau zan eta batez be familia ospakizunetarako egiten genduan lan. Kuskus eta Marokoko jatekoak egiten doguz, baina baita makailoa pil-pilean eta euskal sukaldaritzako platerak; Marokoko te pastak, eta hostopil palmerak; urtebetetze tartak be egiten doguz. Danetik egiten dogu. Ez da horregaitik. Ez dakit zergaitik dan.

### Zure seme-alabak oindino eskolara joaten dira?

Zaharrena beharrean dago, Ilunben egiten dau behar, Igorren. Beste bat Basaurin dago elektrizitatea ikasten eta beste bat Bilbon Nazinoarteko Merkataritza ikasten. Txiki biak Igorreko eskolan. Bost seme-alaba daukaguz.

### Zer espero dozu etorkizunetarako? Hamar urte barru, Arratian jarraituteko asmorik?

Ez dot uste. Beste leku baten bila nabil, aldatu gura dot, egoera hobe baten bila. Beti egoera hobe baten bila.

Nik ez dot immigrazino erre-konoziduten, munduko biztanlea naz, gura dauan lekura joan daitekena. Betebeharrak beteten dodaz eta eskubideak daukadaz. Espainiara sartu nintzanetik kotizetan nago eta behar egitea gustetan jata. Bardin jataz lekua, herrialdea eta hizkuntzea. Hori ez da arazoa. Baina aspaldi honetan hemen dana oso mugatuta da, eusten gabiz, baina aldatutea pentsau behar da. Negozioa aurrera aterako balitz barriro eta dirua irabazten hasiko bagina...



"Urtebetez behar barik geratu ginan, gure eskubideen alde burrukan egin izanagaitik"

"Aspaldi honetan hemen dana oso mugatuta da, eusten gabiz, baina lekuz aldatutea pentsau behar da"

"Ni munduko biztanlea naz, gura dauan lekura joan daitekena. Betebeharrak beteten dodaz eta eskubideak daukadaz"



**IPINI  
ZURE  
IRAGARKIA  
BEGITUN!**

Informazioa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)



**ATE IREKIAK**

**Campus Zulaibar**  
**Apirilak 26, 18:00**



**ZULAIBAR**

ARRATIOKO LANBIDE IKASTEGIA

Zulaibar auzoa 17

Zeanuri · 94 673 91 16 · [orientazioa@zulaibar.net](mailto:orientazioa@zulaibar.net)

TXIRRINDULARITZEA

# Igorren jokatu da Udaberrikopako lasterketa bat hilaren 30ean



Erredakzioa

Bizkaiko 22 ziklismo eskoletako 350 ume inguruk hartuko dabe parte Igorren, apirilaren 30ean, jokatu dan Udaberrikopako proban.

Udaberrikopa Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak antolatuten dauan txirrindularitza eskolen errepideko *challengea*, zazpi probek osotuten dabe. Igorrekoa laugarrena izango da. Udaberrikopako hurrengo lasterketa, maiatzaren 14an, Ermuan; bigilearen 11n Karrantzan eta bigilearen 25ean, Sondikan jokatu dira.

Haur kategorian puntuagarria da lasterketa eta Arratiako Ziklista Elkarteko Murias taldeko txirrindulariek puntuazio onak daukiezala dino Leire Aurrekoetxea AZEko presidentea.

Ordutegia

Lasterketak, Igorreko kiroldegiaren aurrean hasiko dira eta Institututik Arantzazuko Montero tabernaraino joango dira txirrindulariak. Han buelta emon eta eskoletako atzeko partetik joanda kiroldegi aurrean amaituko da proba.

Ordutegiari jagokonean, 10:00etan, benjamin kategoriako lehen mailakoak hasiko dira, eta 10:20ean, benjamin bigarren mailakoan txandea izango da. 10:45ean, kimu kategoriako lehen mailakoak urtengo dira eta 11:15ean, kategoria bereko bigarren mailakoak. Puntuagarria izango dan haurren kategorian, hiru lasterketa egongo dira. 11:45ean, lehen mailako mutikoek izango dabe proba; 12:15ean, haur kategoriako lehen eta bigarren mailako neskek eta 12:45ean, haur kategoriako bigarren mailako mutilek.

MENDIA

# Austarriren mendi urtekera Arabako mendietara

Erredakzioa

Gasteizko mendatetik ibaldia prestatu dau hilaren 23rako, domekea, Zeberioko Austari Mendi Taldeak. Hamabi kilometroko ibildian hiru tontor zapalduko dabez parte hartzaileek: Lendiz

(848 m), Zalbizkar (1.046 m) eta Okiña (794 m). Urtekera, plazatik izango da goizeko 08:00retan.

Izena [austarrimenditaldea@gmail.com](mailto:austarrimenditaldea@gmail.com) helbidean edo 665 735 054 eta 656 415 597 telefonotan emon daiteke.



MENDIA

# Abdul Karim Pakistango alpinistea omentzen dauan dokumentala ikusi ahal izango da Igorren

Ganzabalek antolatuta, hilaren 21ean, 19:30ean, Javier Alvarok 2022an

zuzendutako *Karim-en aztarna* dokumentala ikusi ahal izango da Lasarte Aretoan.

Erredakzioa

Ostean, Alex Txikon, Sebastian Alvaro eta Jose Carlos Tamayogaz solasaldia egongo da, Baltistango alpinistaren bizitza eta itxitako legadua gogora ekarteko.

Dokumentalak 2022ko apirilean hildako Abdul Karim, Karakorumeko alpinista eta zamaketariaren bizitza kontetan dau. Pakistango alpinistatik ezagunetakoa da, 1970eko hamarkadatik XXI. mendeko hasikerara arte, mendebaldeko alpinistei euren espedizioetan lagunduten ibili zana. 2001ean, Sarabastall Fundazinoko bere lagunak konbenzidu ebazan laguntza eta lankidetzara proiektu bat martxan ipinteko bere herrixkan, auzokideen bizi kalidadea hobetuteko. Holan, Baltistango bailara honetan martxan ipini zan Hezkuntza proiektuari esker, herrixka horretako umeen %93 eskolara joaten dira eta hori ez da ohikoa Pakistanen.

Batez be nesken egoereagaz kezkatuta egoan Karim. "Oin dala lau urte, Karim gaixorik egoanean, munduko parte honetan oso harriagarria dan gauza bat eskatu euskun, bere iloba neskek mendiak eskalatzea. Eta holan egin genduan. Lortu genduan Baltistango lehenengo andrazko alpinismo taldea osotutea. Neska honeen eta euren aitita Little Karim-en istorioa da kontau ahal dogun istorio hunkigarrietako bat" dinoe dokumentalaren kartelean.

Alex Txikon, Sebastian Alvaro eta Jose Carlos Tamayo

Karim akordura ekarteko egongo dira Igorren, Alex Txikon, Lemoako alpinistea, 2023an lortu ebana Manaslu (8.163 m) ne-

gvan igotea; Sebastian Alvaro, *Al filo de lo imposible* telebistako programearen sortzaile eta zuzendaria eta Jose Carlos Tamayo bere belaunaldiko alpinistatik onenetakoa.



IGERIKETEA

# Udako Espainiako Igeriketa Txapelketan lehiatuko da Udane Romero

Erredakzioa

Udane Romero Mugarza ugerlari igorretarrak, martiaren 29tik apirilaren 2ra Mallorcan jokatu-tako Udabarriko Espainiako Txapelketan, 50 metroko bizkar proban finaletan sartzea lortu eban eta Junior kategorian zortzigarren egin eban.

Han, dominarik lortu ez arren, ugerlari olinpikoakaz egon zan eta

pozik bueltau zan lortutako emaitzakaz; izan be horreek emoten deusie aukerea udakoan parte hartzeako. Hau da, 50 m bizkar, 50 m libre, 100 bizkar, 100 libre eta 200 bizkar modalidadeetan lehiatzeko denpora minimoak lortu ditu. Horreetatik lau modalidade aukeratu beharko ditu lehiatzeko. Mallorcatik bueltan, Institutuan harrera beroa egin eutsien ugerlariari, ikaskide eta

irakasleek han egindakoagaitik.

Oin, garagarriaren 26tik 30era, Tarragonan jokatu dan Espainiako Udako Txapelketara prestatzea da igorretarraren helburua. Han be marka onak lortzeako gogor entrenetan dabil Romero eta Gasteizen be egon da 50 metroko ugerlekuan entrenetan.



Udane Romero eta Lidon Muñoz ugerlari olinpikoa.

## MENDIA

# Zizetan Dimako mendi martxea apirilaren 22an izango da

### Erredakzioa

Ibilbide bi egongo dira aukeran. Luzeak 18 km ditu eta parte hartu gura dabenak 08:00etan abiatuko dira frontoi txikitik. Familia ibilbideak barriz, 7,4 km ditu eta 10:00etan ekingo deusie bideari partaideek. Izena alde zurretik emon daiteke online edo egun berean urten baino ordu erdi lehenago. Helmuga kontrola

14:30ean zarratuko da.

Aldez aurretik izena emoteko, Dimako udal webgunean [www.dima.eus](http://www.dima.eus) sartu behar da, webguneko fitxa bete, 8 euro ordaindu ES71 20950154509111708612 kontuan eta fitxa eta ordainagiria [harrera.dima@bizkaia.org](mailto:harrera.dima@bizkaia.org) helbidera. Egunean bertan be emon daiteke izena Dimako frontoi txikian, urten baino lehenago, 12 euroko prezioan.



## PALEA

# Bizkaia Cup-eko Gomazko Paleta Txapelketea irabazi dabe Irati Illarregik eta Haizea Iturbek

### Erredakzioa

Apirilaren 2an, Basauriko frontoian jokatu zan Bizkaia Cup-eko andrazkoen C mailako gomazko paletako finala. Bertan, Hori Hori KJ talde elorrioztarraren kontra lehiatu zan Areatza C taldea, Irati Illarregik eta Haizea Iturbek osotuta eta atzen honeek urten ziran garaile, alde handiagaz gainera, 30-15 hain zuzen be.

Aurretik, urtailean hasitako ligaxka fasea, final-laurdenak eta finalurrekoak gaintitu behar izan ditue. Ligaxka fasean, sei partidu jokatu eta seirak irabazi ebezan

Illarregik eta Iturbek. Holan, ligaxka faseko buruak izan ziran. Areatzako beste bikote bat be egon zan lehian, Irati Valdevira eta Aiora Arnaizek osotuta, baina ez eben lehen fasea gaintitu.

Final-laurdenetan, Olgetan G taldea izan eben aurkari Areatzan bertan eta etxekoek 30-21 irabazi eben. Finalurrekoa barriz, partidu bira jokatu zan eta biak irabazi ebezan billaroztarrek, 30-9 eta 30-21, Zornotzako Erdu B taldearen kontra. Holan, lortu eben finalerako sailkatzea eta hau irabazi ostean jantzi dau txapela bikoteak.



Haizea Iturbe eta Irati Illarregi.

## PELOTEA

# Arratiar delegazio zabala izan dau Euskal Selekzioak Valentziako Munduko Pilota Txapelketan

Martiaren 28tik apirilaren 1era, Eskupilotako Konfederazio Internazionalak antolatutako Munduko Pilota Txapelketea jokatu eben hemeretzi herrialdetako selekzioek, Euskal Selekzioak tartean, Alziran (Valentzia). Hamasei euskal jokalar joan ziran, zortzi andra eta zortzi gizon, eta euren artean Lur eta Ekhi Ziarrusta anaiak eta Amaia Aldai, dimoztarrak hirurak.

### Erredakzioa

Ekhi Ziarrustak ezin izan eban jokatu, lesino bat zala-ta. Gainera, Ainhoa Ruiz de Infante be egon zan bertan, Txumuluxeta klube-koa. Lur Ziarrustak azaldu dauanez, Mikel Beldarrain artezitarra be egon da taldean, "baina pene-a, lan kontuak izan dirala-ta, ezin izan dala etorri".

Lau modalidade jokatu ziran bertan: Joko Internazionala, Frontoi Valentziarra, One Wall-a eta Llargues-a, atzen hau gizonak bakarrik. Lur Ziarrustak esan dauanez, "talde polita eroan dogu eta pozik bueltau gara emaitzakaz". Izan be, hiru urrezko domina eta brontzezko zein zidarrezko domina banagaz bueltau ziran Euskal Herrira.

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzak adierazo dauanez, "selekzioa txapelketako onena izaten bueltau da Euskal Herrira". Hain zuzen be, sailkapen orokorrean euskal andrak izan ziralako lehenak; gizonak barriz, azpitxa-

peldunak. Jokalari onenen artean be egon ziran euskaldun bi, Nora Agirre 22 urtez azpiko andren artean eta Egoitz Amantegi, gizon-zezko nagusien artean

### One Wall-a Euskal Herrira

One Wall-a izan da Munduko Pilota Txapelketan jokatutako modalidadeetako bat eta atzenaldian, Euskal Herrira hurreratuteko ahaleginean dabiz, Mikel Beldarrain eta Lur Ziarrusta tartean.

Holan, Rebotean One Wall Kluba eratu da eta Aste Santuan lagun arteko nazinoarteko txapelketa bat jokatu zan Diman. Munduko Pilota Txapelketearen ostean, argentinar, mexikar eta valentziar bina hurbildu ziran erakustaldia egitera. Klub honegaz, "kanpoan jokatuten diran txapelketak noizean behin Euskal Herrira ekarteko aukerea izan eta modalidade hau gurean sartzea" topetan dabela azaldu dau Ziarrustak.



Amaia Aldai eta Lur Ziarrusta.

## FUTBOLA

# Gizonezkoen Arratia A lider da ligea amaituteko sei jardunaldiren faltan

### Erredakzioa

Aprilean nagusien Arratiako futbol taldeek jardunaldi bi jokatu dabez Aste Santuan ez dabelako partidurik jokatu. Jokatu dabezan hamar partiduetatik 9 irabazi dabez.

Andrazkoen Arratia Ak hilaren 15ean jokatu eban Añorga taldearen kontra etxetik kanpo eta atzen aldiko bolada onari jarripena emonaz 0-2 irabazi eban. Lehenengo gola lehen zatian heldu zan Nerea Beitia lemoztarrak sartutako gol eder bateri esker. Bigarren zatian Irune Eigurenek sartu eban bigarren gola. 26 jardunaldiren ostean eta ligea amai-

tuteko 4 partiduren faltan Arratia A hamargarren postuan dago 35 puntugaz. Datorren partidu Oiarzun taldearen kontra jokatuko dau Urbietan hilaren 22an, arrastiko 15:30ean.

Domeka eguerdian jokatu eban ostera gizonezkoen A taldeak Urbietan eta 1-0 irabazi eban Moraza A taldearen kontra. 28 jardunaldiren ostean eta ligea amaituteko seiren faltan Arratia A lidertzan dago 61 puntugaz. Datorren partidu etxetik kanpo jokatuko dau Basurto A taldearen kontra hilaren 23an, goizeko 11:30ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 16an Ugao talde liderraren

kontra etxean jokatu eban eta 0-2 galdu eban. 26 jardunaldi jokatu ostean zazpigarren postuan dago Arratia B 37 puntugaz. Datorren partidu Ariz taldearen kontra jokatuko dau etxetik kanpo hilaren 22an, arrastiko 16:00etan.

Gizonezkoen Arratia B taldeak ostera hilaren 15eko arrastian jokatu eban Urbietan Ermua A taldearen kontra eta 4-1 irabazi eban. 28 jardunaldiren ostean Arratia B bederatzigarren postuan dago 39 puntugaz. Datorren partidu etxetik kanpo jokatuko dau Artibai taldearen kontra hilaren 22an, arrastiko 17:30ean.

Lemoako Harrobik hilaren 16ko arrastian jokatu eban Arlo-nagusian Artibai taldearen kontra eta gol festa izan zan, 5-3 irabazi eban-eta Lemoako taldeak. 28 jardunaldiren ostean seigarren postuan dago 48 puntugaz. Datorren partidu etxetik kanpo jokatuko dau Etxebarri B taldearen kontra hilaren 23an, goizeko 11:30ean.

## JANTZEA

Maiatzaren 6an izango da  
aurten Dimako Dantzari Eguna

## Erredakzioa

Kalejireia Zarpantzarraz, jantza emonaldia, otzararen zozketea, bazkaria, umeentzako jolasak, eskal diskofesta eta txokolatea egongo dira Dimako Gazte Barri jantza taldeak antolatu dauan aurtengo Dantzari Egunean. Zeanuriko Arrikibar, Otxandioko Urduri, Igorreko Arantzarte, Lemoako Durundi Barri eta Dimako Gazte Barri jantza taldeak batuko dira egun horretan. Bazkarirako txartelak aurretik erosi behar dira [gaztebarri@gmail.com](mailto:gaztebarri@gmail.com) helbidera idatzita.

Aurtengo kalejiran, Arratia eta Otxandioko jantzariakaz batera, Zornotzako Bizkargi 1937 Zarpantzar taldeak be hartuko dau parte. Jantza emonaldia 13:00 inguruan izango da eta honeri hasikerea emoteko Dimako Bertso Eskolearen laguntzea be izango dabe jantzariek. Emonaldia amaitutakoan otzarearen zozketea egingo da eta gero bazkaria. Arrastian, umeentzako egur jolasak egongo dira 15:30etik 17:30era eta ostean, Euskal Diskofesta Ismederren eskutik. 18:30ak aldera txokolateagaz emongo jako amaierera jantzari egunari.



## IRAKURLE TXOKOA

Nerea Ibarzabal izango da  
Arteako Literatur Txokoan *Bar Gloria* bere eleberriagaz


## Erredakzioa

Urtailean zan egitekoa saioa baina atzeratu egin zan. Holan, apirilaren 28an, 19:00etan daukie Arteako Literatur Txokokoek, *Bar Gloria* liburuaren gainean egileagaz berba egiteko hitzordua.

Susa argitaletxeak kaleratu eban igaz Nerea Ibarzabal bertsolariaren lehenengo nobelea.

"Mundu bat kabituten da Gloria tabernako azulejo gorri eta gainazal koipetsuen artean, eta denporearen ate desbardinatetik sartuko da irakurlea bertara kontakizun honetan. Jentea da haren zimendu, eta konplizidate uneek, isildutako bortxa-markek, lanordu konpartiduek zein alkarrizketa tarteka mutuek epeldu bezala erreko ditue habe horreek, beste

batzuk eregiteko akaso. Iragan hurre baten berbazko filmatze bat dakar" *Bar Gloria*ak.



## URTEURRENA

Igorreko Kiñu Gaztetxearen IX.  
urteurren jaia hilaren 29an ospatuko da

Bermut saioa, bertso-bazkaria eta gauean kontzertuak egongo dira, besteak beste, hilaren 29an Kiñu Gaztetxearen IX. urteurrena ospatuteko jaian.

## Erredakzioa

Sofokaos eta Willis Drummond rock taldeek joko dabe Kiñun eta ostean Lilakk dj-ak girotuko dau gaua.

Aprilean beteten ditu urteak Igorreko Gaztetxeak eta berderatziparren hau ospatuteko hainbat ekintza antolatu ditue gaztetxeek. Martiaren 31n, Anariren kontzertuagaz ziran hastekoak ospakizunak, baina kantariaren osasun arazoak zirala-ta, bertan behera geratu zan kontzertua. Hori dala-ta, urteurren ospakizunok, apirilaren 14an hasi ziran eta aste-goien osoan zehar egon ziran ekintzak. Barikuan, umeentzako *Urpekotzi misterioa* ikusizunagaz emon jakon hasikerea



egitarauari eta hurrengo egunean, Zumbatoia eta bazkaria egon ziran. Domekan, Antixenako Gaztetxeak egindako *Mari* filma ikusteko aukerea egon zan. Anariren atzeratutako kontzer-

tuak badauka data barria, apirilaren 21ean, barikua, egongo da abeslari azkoitiarra 21:30ean Igorren.

## Futbolin txapelketea eta urteurren jaia

Aprilaren 29an, zapatuan, izango da urteurren jai nagusia, egun osoa hartuko dauana. Goizez, tailerrak eta marianito-pintxadea egongo dira, dj-agaz girotuta bermuta egin eta gozatuteko. Gero, bertso-bazkaria egongo da eta arrastiz, poteo musikatua. Gauean barriz, Sofokaos eta Willis Drummond rock taldeen kontzertuak egongo dira eta ostean, Lilakk dj-ak, musikea ipiniko dau goizaldeko ordu txikiek jo arte.

Bezperan, 19:00etan, futbolin txapelketea egongo da Igorreko Axular Herriko Tabernan.

## KOTXEPIN

Identitarteak antzezlanaren estreinaldia  
eta *Hotzikara* ipuin erotiko kontaketea  
Lemoako Kotxepin Kultur Etxean

## Erredakzioa

Aprilaren 21ean, 20:00etan, Ane Zabala eta Galder Perez Giltzikaroko Antzerki Taldeko kideek, Lutxo Egiaren *Identitarteak* antzezlanaren estreinauko dabe Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Lan honeguz Lutxo Egiak 2016an Cafe Bar Bilbao Teatro Laburreko saria irabazi eban.

"Izan ala ez izan, antzerkiaren galdera handietakoa izan, bada. Lutxo galdetzen ari da. Eta ari da Egia, egia. Aritu ala ez aritu, hori be bada teatroaren beharrezko jolasa. Eta hau, guzti horren aitzinsolasa, bai, irakurten ari zara. Antzerki lan honetan jokatzen daben personaiak zerbait, norbait, izatera aritzen dira, solasean, jolasean. Etenbako bilaketa dan solasaren jolasean arituko dira, galduko dira eta aurkituko dira. Personaiak ala ez personak. Identitarteak ala identitarteak. Ohiko teatroan us-tezko identitate sendoak daben gorputz, arima zein izaki, izateko jolasean aritzen diran aktoreak

## Identitarteak



dira, aktanteak. Diranak, badiranak. Inorenak. Eurenak. Eta ez danonak" azalduten dabe Perezek eta Zabalak *Identitarteak* antzezlanaren aurkezteko.

## Nagusientzako ipuin kontaketea

Aprilaren 26an barriz, Ines Bengoak *Hotzikara* 16 urtetik gorako gazte eta helduentzako ipuin erotiko kontaketea egongo dau 18:30ean Kotxepin Kultur

Etxean, losu Lizarragaren musikeagaz lagunduta. Ikuskizunak erotismoaren historia kontetan dau.

Pasino, zoramen eta umoreagaz, egoera desbardinatutako proposatu, personaiak ugari aurkeztu eta ikus-entzuleei istorien bitartez bidaia batean sartu daitezkan konbitea egongo deutsee Bengoak eta Lizarragak, "sexuaren gozamen, hotzikara" lez, sentiduteko.





## LIBURU EGUNA

# Arratiako liburutegietan ekarriko dabe akordura Liburuaren Eguna

Aprilaren 23an, Liburuaren Nazinoarteko Eguna da eta irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak antolatu ditue Arratiako liburutegietan aurreko eta osteko egunetan.

### Erredakzioa

Holan, Bediako liburutegian, txo-  
txongilo ikuskizuna egongo da  
hilaren 26an; Lemoako liburu-  
tegia 23tik aurrera euskerazko  
liburu bat hartzean dauanak opa-  
ria jasoko dau eta Igorren, plaza-  
ra jalgiko da liburua euskereagaz  
batera apirilaren 21ean.

Nazinoarteko Liburuaren Egu-  
nean, jalgi hadi plazara! Euskera  
mundura eta mundua euskerara!  
lelopean ospatuko dabe Liburu-  
aren Eguna Igorren aurreko  
barikuan. 13:00etatik 14:00etara,  
kontakizun laburrak eta poesia  
errezitaldiak egongo dira 105eko  
plaza txikian; arrastian, 18:00eta-  
tik aurrera, mikro irekiak jentek  
gura dauana irakurri dagian eta  
ostean, ipuin kontaketea Rosa  
Martinezaren eskutik.

Lemoan, Liburutegiak eta Uda-  
leko Euskara Zerbitzuak saritu  
gura dabe euskeraz irakurtea.  
Horregaitik, apirilaren 23tik aurre-  
ra eta hilabete batez, euskerazko  
liburu bat maileguan hartzean  
dauanak opari bat jasoko dau.

Bedian, umeak liburutegira  
erakarteko, Mikel Hernandezek  
*Ganbaran* txotxongilo ikuskizu-  
na eskainiko dau apirilaren 26an,  
18:00etan. "Kamarak istorioz bete-  
ta dagoz. Liburu zaharrak ilaretan  
pilatzen dira, hautsez beteten dira  
eta gehienetan ahaztuta geratzen  
dira. Baina nire kamaran desbar-  
dina da; izan be, istorio honen  
protagonistek gure bizitza alda-  
tzen dauan liburu horreetako bat  
aurkituko dau. Liburu horregaz  
Arbolia izeneko lurralde ezezagun  
batera bidaia egingo dau. Kama-  
ran dagoan liburu idazten amai-  
tu gura? Zatozie ba *Ganbarara!*"  
dino sinopsiak.

### Bizitza aldatuten daben liburuak

Handiena ez bada, gizakiaren  
asmakizunik handienetakoa da  
liburua. Irakurtea norbere burua  
eta besteak ulertuteko tresna  
ezinbesteko izateaz gainera, mila  
bizitza biziteko eta mila mundu  
ezetuteko giltzea da; baita huma-  
noago egiten gaituen emozino,  
plazer eta min guztien espilu.  
Bakardadean lagun, aurreko  
mendeetako memoria... badagoz  
bizitza aldatzen daben liburuak  
be, onerako beti. Ospatu ala ez,  
ezin da ahaztu garanak garala  
neurri handi baten irakurri dogu-  
zan liburuei esker.



## DUNBA

# Burdin Arora bidaia egin dabe Zeberioiko umeek

Aste Santuko oporrak hartu baino egun batzuk lehenago, Arrolako *Oppiduma* ikustera joan ginan 5. eta 6. mailakoak.

### Zubialde ikastetxea

#### Irulegi eta Arrola

Burdin Aroko herri gotortuen artean Irulegiak ezetuten genduan, brontzeko eskuaren aurkikuntza ikaragarria dala eta. Gure inguruan antzeko herrixka bat non topaiko, eta Urdaibaira jo genduan oin dala 2.000 urte baino gehiagoko harresidun herrixka bat bertatik bertara ikusteko. Nafarroako Aranguren bailaran Irulegiko aztamategia dagoan moduan, Gernikatik hur Arrolako herrixkearen aztamategia dago, eta

indusketa lanetan jarraitzen dabe gaur egun, bietan. Arrolako kastroa edo herri gotortua izen bereko tontorrean dago, Nabamiz eta Arratzu artean, itsas mailaren gainetik 535 metrora. K.a. IV. mendean sortu zan eta K.o. I. mendera arte Urdaibaiko biztanle-gune nagusia izan zan, 500 urtean, hain zuzen be.

#### Babeserako neurriak

Herrixka Arrolako muinoan egoanez, inguru guztiaren ikuspegi ezin hobea eben herritarrek. Kokapen hori herria ahalik eta ondoen

defenditu ahal izateko aukeratu eben. Babesteko bigarren neurria herrixka harresi bategaz inguratzea izan zan, 6 metroko altuerakoa, hain zuzen be. Horren aztarnak ikusgai dagoz oindino be. Harresi ikusgarriak 9 hektareako lur eremua inguratzen eban, 9 futbol zelaik beste! Aurreko biakaz nahiko ez eta beste trikimailu bat erabili eben etsaiengandik defendiduteko: sarrera tranpa bat. Sarrera sigisagatsuan etsaiak gatibu geratzen

ziran barrura sartzean ahalegintzen ziran orduan. Geu be herritarren eta etsaien azalean jarri ginan, eta eraginkorra zala frogatu genduan!

#### Herritarrak eta bizimodua

Arrolako herrixka harresidunak 400 herritar inguru izan zituan. Garai haretarako biztanle asko ziran horreek, lehen esan dogun moduan Urdaibaiko herririk handiena zan eta. Arrolako *Oppiduma* esaten jako, hori dalako sasoi haretako herrixka handiak



Ikasleak Arrolako *Oppidume*ko Ipar Mendebaldeko sarreran.


## MUSIKEA

# Nor da Maurizia? umeentzako ikuskizun pedagogikoa Igorren

### Erredakzioa

Maurizia Aldeiturriaga Zeberioiko pandero-jolea erreferente izan arren, ume eta gazte askok Maurizia nor zan ez dakiela jaubetuta, Itxaso Payák Mauriziaren bizitza eta obra gazteei egokitu-tako antzezlan bihurtutako *Nor da Maurizia?* lana antzeztuko dau apirilaren 22an, 18:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan. Ikuskizun multi-diziplinarra da eta Maurizia nor zan azaltzeaz gainera, gaztetxoak euskal kultura-hurreratzea dauka helburu.

LHko bigarren eta hirugarren zikloko ikasle eta DBHko lehenengo ziklokoentzat pentsauta dago. "Egungo gazteek gura baino gitxiago konsumiduten eta praktiketan dabe kulturea, eta horren ondorioz, gero eta urrunago geratzen jakiez gure kulturearen erreferente eta erreferentziak. Gogoeta horretatik abiatuta, gaur egungo gazteriaren hainbat behar eta ezaugarri identifikatu doguz. Gure kasu zehatzean, alde batetik, gazteek ez dabe zuzeneko euskal musika edota antzerkirik konsumiduten eta, bestetik, Euskal Herriko historian parte garrantzitsua izan diran pertsoniak eta erreferenteak ezezagunak jakiez. Hutsune horreek beteteko asmoz, *Nor da Maurizia?* ikuskizuna sortu dogu" azaldu dabe ekoizleek.



### Itxaso Payá Ruizen gidioa

Zelako Kultur Ideiak ekoiztuta, Itxaso Payá Ruizena da gidioa. Musikea, Andre Trabudua eta Alberto Marcosena da eta jantzan Iholdi Beristain zein Ibabe Beristain ibiltzen dira. Maria Rivero Campo da lanaren zuzendari artistikoa eta Gorka Chamorro Azkona zuzendari teknikoa.

### Eingogaz kalejire

Euskera jalgi hadi plazara! lema-pean, Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuak, kantu poteo ibiltaria antolatu dau Eingo taldeagaz. Partaideak 19:30ean abiatuko dira Kifü Gaztetxetik, musikea, euskerea eta jai giroa herriko kaleetara eroateko.



izentatzeko modua. Guk badakigu oin dala 2.000 urte baino gehiago Euskal Herrian zenbait tribu bizi izan zirala, eta horreen artean barduliarak izan ziran Arrolakoak. Lanbide mota asko egozan herritarren artean: nekazariak, abeltzainak, artisauak, errementariak eta abar. Euren etxola xumeen aztarnak argi eta garbi ikusi genduzan bertatik bertara. Horrezaz gainera, Arratzuko interpretazio zentroan etxola horreetako baten erreplicea ikusi ahal izan genduan. Gure bizilekuen aldean txikiak benetan! Barduliarrek erromatarrek heldu ziranean itxi eben herrixka, K.o. I. mendean, eta Forura joan ziran bizitera. Arkeologoek ez dabe lan makala Arrola inguruan. Irakurle, etorkizuneko arkeologoa izateko prest?



# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

#### FURGONETEA SALTZEAN DOT

1998 urteko Peugeot Boxer furgonetea, egoera onean, saltzean dot. Interesdunek deitu telefono honetara: 688 638 906.

#### MOBIKORTASUN MURRIZTUA DABENENTZAT MOTORRA SALGAI

Mobikortasun murriztua edo desgaitasuna daben personentzako motorra. Libercar Urban Scooter elektrikoa. Bateria barria 2022an ipinita. Ez da erabilten 2022ko bagilatik. Interesdunek deitu 676 936 010 telefonora.

#### TXAKURRAK OPARITUTEN DODAZ

Ama mastina da eta aita border collie-a. Hiru hilebete daukiez. Interesdunek deitu 657 724 435 telefonora.

### LANA

#### GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketarako egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

#### GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztiarako. Igorreko Kiñu Gaztebtean. Interesdunek deitu 664 303 528.

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.

#### PSIKOLOGIA ZENTROA ESQUALDATZEN DA

Igorreko San Juan auzunean, baimen guztiakaz eta jardun betean. Interesdunek deitu 600 634 272 (Sagrario) telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Nor da Maurizia?** ikuskizunerako.

Janire Aierdi (Areatza)  
Rikardo Beldarrain (Artea)



**2** Kiñu Gaztebteak eta Areatza Musik and Brewing alkarteak antolatutako apirilaren 22ko kontzerturako sarrera bi.

Maidar Larrea (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

**NAIARA** Hartz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Baxarra egin eta bukunduten dogu.  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**KIRRU** ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**begitu** eus

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel.: 94-673-70-87  
Tel.: 609-79-40-54

**ZEKUTZE** JATE TXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
zikutzekutze@hotmail.com  
Tel.: 94 631 52 83

**begitu** eus



# IGORRE E·Z·E·T·U

## ERAKUSKETEA

2023-03-24tik 2023-04-28ra  
IGORREKO KULTUR ETXEAN



# KRISTONAK

## “AhOBETEhORTZ” biniloa!!!



**elkar**  
[www.elkarargitaletxea.eus](http://www.elkarargitaletxea.eus)  
(+34) 618 94 79 54